20 03

OIANLEKU IPAR HARRESPILA

Monumentu megalitikoak edo megalitoak harri handiek osatutako historiaurreko eraikuntzak dira. Hauek dira Euskal Herrian maizenik ikus ditzakegunak: harrespilak, trikuharriak, monolitoak, tumuluak eta zistak.

Harrespilak Burdin Aroko ehorzketak dira. Bertan, hainbat harri ipintzen dira zirkulu bat osatuz, eta erdian errauts-kutxatila bat aurkitzen da erre egindako gizakiaren gorpuzkiekin. Hitzak bretoi jatorria dauka.

Oianleku ipar harrespilak GI-3631 errepidetik 13 kilometroa kokatuta daude (Oiartzun-Artikutza). Guztira, zazpi dira, bata bestearengandik oso gertu jarrita:

1 eta 2. monumentuak: bi harrespil ebakitzaileen multzoa da (hau da, bere harriek deskribatzen dituzten zirkunferentziak ebakitzen dira). 1. monumentuak 9,50 m diametro inguru dauka eta 29 testiguk osatzen dute, eta 2.a, berriz, 6,80 m diametro inguru dauka eta 18 testiguk osatzen dute.

3 eta 4. monumentuak: bi harrespil ebakitzaileen multzoa da, 3.ak 4 m diametro inguru du eta ageriko 14 testiguk osatzen dute, eta 4.ak,berriz, 5 m diametro inguru dauka eta ageriko 5 testiguk osatzen dute.

5. monumentua: harrespil honek 10 m diametroa dauka eta ageriko 11 testiguk osatzen dute. Harrespil honek tangentea eratzen du 6. monumentuarekin.


6. monumentua: 6 m diametro inguruko eta ageriko 6 testiguk osatutako harrespil bat da. Horrek tangentea eratzen du 5. monumentuarekin.

7. monumentua: harrespil honek 4,50 m diametro inguru dauka eta ageriko 9 testiguk osatzen dute.

Egituretan erabilitako materialak lurraldeko granitoak dira.

Gaur egungo ortoargazki gehienen bereizmena pixelen tamainarekin lotuta dago (0,25 m). Hura mota honetako egiturak erraz atzemateko mugan dago (askotan, halaber, begetazioak estalita egoten dira). Kasu honetan, 1. eta 2. harrespilak (ebakitzaileak) erraz ikus daitezke, baina gainontzekoetan askoz zailagoa da.

Gehiago jakiteko: Carta arqueológica de Gipuzkoa. I Megalitos. - Sociedad de Ciencias Aranzadi. Munibe.



Ortoargazkia 2009. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 595241 m // Y: 4789700 m // Z: 612 m. Oianleku ipar harrespil multzoa, Oiartzunen (Gipuzkoa).

Oianleku iparreko 1 eta 2. harrespilak. Atzean Aiako Harria ikus daiteke. Altunak induskatu zuen 1975ean.